



Antton eta lagunak

Negua da. Hotz da kanpoan ; elurra ari da. Etxean, sutondoan, gizon zahar bat egunkariaren irakurtzen ari da. Antton izena du. Bakar-bakarrik bizi da baserrian.

– Aaah ! Egunkaria irakurri eta ohera banao. 5

Bat-batean, norbait atean joka ari da. Anttonek atea zabaltzen du : zaldi bat.

– Gau on ! Biziki akitua naiz eta hormatua. Otoi, zure etxean sartu nahi nuke...

– Aitzina ! Aitzina ! Sar hadi. Ezkaratzean lo egingen duk. 10

Antton ohera doa. Baina orduan berriz ere norbait hautemaiten du atean joka. Anttonek atea irekitzen du. Harritua da. Atean, oilo bat.

– Gau on ! Leher egina naiz eta hormatua. Otoi, zure etxean sartu nahi nuke. 15

– Aitzina ! Aitzina ! Ezkaratzean lo egingen dun.

Antton, zaldia eta oiloa etxean lo ziren.

Tan ! Tan ! Tan ! – norbaitek atea jo zuen.

Antton jaiki zen.

– Nor da ? 20

– Miau ! Miau !

Anttonek gatu ttipi bat ikusi zuen.

– Aitzina ! Aitzina ! Ezkaratzean lo egingen duk.

– Uau ! Uau ! Ni ere hormatua naiz.

Anttonek orduan xakur ttipi bat gatuaren gibelean ikusi zuen. 25

Gatua eta xakurra etxean sartu ziren.

Goxoki eta beroki, denek gaua ongi iragan zuten.

Biharamunean, jaiki orduko, Anttonek sua piztu zuen eta kafea beroarazi.



- 30 Ezkaratzera joan zen; animalia guziak lo ziren.
Pixkanaka, animaliak iratzartu ziren.
Anttonek erran zien :
– Lagun maiteak, orain etxetik joan behar duzue. Nik dirurik ez dut aski zuen janariaren erosteko.
- 35 Eta gogoia ilundu zitzaion.
Zaldiak erran zion :
– Antton! Ez izan triste! Nik lagunduko zaitut lanen egiten eta bizkarrean ibiliko zaitut.
Oiloak :
40 – Nik arroltzeak errunen ditut; batzuk janen dituzu eta besteak merkatuan salduko.
– Milesker, lagunak! – ihardetsi zien Anttonek.
Gizona alaitu zen eta irriz hasi.
Beste animaliak ere mintzatu ziren.
- 45 Xakurrak ere gizon zaharra lagundu nahi zuen.
Gatu ttipiak ere bai.
Xakurra zaunka hasi zen.
– Nik zure etxea zainduko dut eta zure laguna izanen naiz.
– Eta nik – erran zuen gatuak, etxean diren sagu guziak janen ditut.
- 50 Gizon zaharra orduan ohartu zen animalia horien guzien beharra bazuela etxean.
Eta denak elkarrekin bizi izan ziren urte anitz, elkar lagunduz.

Francas erakundearen *Jeunes années* aldizkaritik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT


- Nor da Antton? Non bizi da? Nola?
- Zein dira etxera heldu zaizkion animaliak?
- Non lo egingen dute?
- Zergatik da Antton triste?
- Zer aterabide proposatzen diote animaliek?
- Zure ustez non gerta daiteke horrelako istorioa: hirian? herri tipi batean?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Bi hitz hauek erro bera dute: erro bereko hitz batzuk xerka itzazu.

egun ⇔ egunkaria		hilarriak	urtekari
hila	jantegi	urte	jan

- Asteko egunak nahas-mahas emanak dira. Ordenan idatz itzazu.



- Erranaldi hauek berridatz itzazu kontrako erranahia adieraziz.

gizon zahar bat	gizon <i>gazte bat</i>
atea ireki	atea
Antton jaiki zen	Antton
hurbildu zen
sua piztu	sua
xutik ziren
Antton triste zen	Antton